



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Euskaldunon inertzia zenbait (I)

osasuna / hiria / hirien lo(r)aldia / harremanak

3 BEGIRADA:

Badira topiko batzuk, tokiko hizkuntza erabilienera euskara ez den hiriguneetan bizi garenei ezagunak egingo zaizkigunak. Batetik, “yo soy español y por eso no hablo euskera”. Frantsesez ez dakit nola esaten den. Ingelesa ikasten dugu eskola publikoan, baina Iruneko mugatik haratago zulo beltza omen dago, eskolako testuliburuaren arabera. Egia esan, sentsazio arraro batez turista sentitzen naiz askotan Ipar Euskal Herrian, bertako lagun euskaldunekin ez banago. Euskal herritar rago nintzateke frantsesa ere jakingo banu, ez dakit. Eta eskola liburuena ixteko, EAEn ez da arazoa frantses Estatuarekin bakarrik. Nire historiako liburuak dio Trebiñun ez dela inoiz ezer gertatu: beltzez ageri da noiz eta Erromanikoaren garaian!! Ziur jende askok uste duela maparen zulo horretan dagoela ditxosozko Gasteizko pantano hori.

Hemen badakigu, baina hezkuntza eskolak ez gaitu abertzaletasunean eta euskararen doktrinatzeko. Etor dadila Albert Rivera gure instituturaren bestela. Ea zer kontatzen dioten ikasleek. Askok horixe, “español” direla eta euskaraz ez dutela egiten, hau “España” baita. Nazioa, beste gauza asko bezala, etxetik ikasita dator. Eta espainolak desespainolizatzen dituen agenterik inportanteena, Katalunian ikusten ari garen bezala, polizia agentera izan ohi da.

Ez dugu asmatu euskarara ekartzen espainol direnak (Ipar Euskal Herrian arazoa ezberdina dela deritzot, hobe bertako euskaldunek argudia dezatela). Eta gure hizkuntza zerbait arrotz bezala bizi dute. Aurrekoan, ikasleek proposatu

zuten euskararen eguna dela eta baserritarrez jantzita joatea eskolara. Ba horixe, folklore fosilizatua: baserritar jantziak, taloa, sokatira eta euskaraz hitz egitea. Gazteera nagusi den hiriguneetan, hankamotz gaude: espainolek (gehiengoak) ez dute egin nahi, jeltzale bozkatzeko duten askok ez diote batere apreziorik eta beste kontinenteetatik iritsitako seme-alaba askok, ez diote ikusten interes berezirik hizkuntzari, bertakoek erabiltzen ez badugu.

Nondik hartu ote dute hori? Irakasleok filosofiari, fisikari, kirolari edo matematikari buruz ari gara beraiekin egunero eta ezin dugu euskaldun-baserritar topikoarekin apurtu. Zaila da, komunikabide publikoek ere inertziak ez dituztelako moztu. Txikitari bai, ETB3 ikusi, marrazki bizidunak euskaraz. Gaztetxotan, ETB1 (“Gure Kasa”, “Egunak egin du”). Eta gero... gero ezer ez. Nire aitona zenari bezala pilota eta arrauna gustatzen bazaizkizu, ederto. Edo “errantxerak” (horrela idatzi beharko da, euskarazko kanalean jartzen baitituzte) eta bilbainadak (hauek ere euskaraz omen dira). Hori bai, nagusitan ETB2 ikusi beharko duzu. Albis-tegi luzeagoa, eguraldia, Athletic... edo beste edozein gai inportante axola bazaizkizu. Eta nola ez, Eusko Jaurlaritzaren iritzia hiru aldiz jarraian entzun nahi baduzu, “Jainkoaren Egia” bailitzan.

Ez da errua botatzearren EAeko egitura publikoari. Baina benetan oso gogorra da inertziekin apurtzea ez badute laguntzen.

Eskerrak baditugun ehunka ekin-tza kultural antolatzen dituzten jendeak, euskara hizkuntza kontsideratzen dutenak eta ez folklore. Luzeegi eta batere konstruktibo joan da zutabea. Bigarren zatian hobeto, saiaturko naiz. •



Ilustrazioa: Jonbi EGURZEGI